

# EDITORIAL

«Berrito ere Maiatzaren lehenengo astea izan da euskal mendizaleetasunaren barruan urteko aldirik garrantzitsuena, mendizaleetasun ekintzak direla-ta. 1979an Dhaulagiri-ren izena, eta 1980an Everest-ena izan baziren heurei begira euki gintuztenak, aurtengo honetan Jannu eta Lhotse Shar izan dira, heurretan egon dira-ta gure mendizaleak».

Joan-etorri bion amaierak ezberdinak izan dira: Jannurena gailurreraino helduaz, Lhotserena, ostera, gailurrera heldu ezinaz. «Eta zabaltzen hasi dira, itxuraz, holako kasuetan dauden bi iritzi bakarrak: arrakasta edo hutsegitea. au da: goratzea edo ahaztea; helduera garailea edo ahaztura-rik handiena».

Pentsakerā hau guztiz okerra ta zuzen-gabekoa izan daiteke. Mendi handietan Izadia da agintzen duena. Eta horrexegatik gailurrera igotzeko metro apurren batzuk falta direlarik, beheruntz hasia baino beste biderik ez eukitea suerta liteke. Eta hor gelditzen da joan-etorriaren emaitza, hainbat urtetako prestaerak eta, azken batetan,

kondairaren eta herri-iritziaren aurrean ekintza haren irudia.

Ezin daiteke esan joan-etorri batek (Lhotse Shar bezalakoak, e.b.) huts egin duenik bakarrik gailurra ez dutelako lortu, beste baldintza batzuk kontutan hartu gabe: Izan liteke hutsegiterik ez izatea, baina bai suerte txarra eukitea. Bestalde, egia biribila ere zera da, gailur gogor eta handi bat (Jannu bezalakoak, e.b.) ez dela suerte hutsez lortzen. Emaitza da lan zuhur eta ausart baten fruitua, hutsegite handirik gabe.

Gailurra lortzea oso ernarazle ta gogobetegarria izan liteke, baina horrek ez du balio joan-etorri baten arrakasta edo hutsegitearen neurria emateko. Bai, ostera, benetako hutsegitez har dezakegu txarto eratuak joan-etorri bat taldeari ez dagoz-kion helburu batzuekatik, edo taldea osotzen dutenen elkarbizitza aurrera ongi eraman ezina, edo aurrera ezin denean egin sasoz itzultzen ez jakitea, edo ibili den jendearen artean eta parajeetan zehar irudi txar bat uztea...

---

«El éxito y el fracaso, la vida y la muerte están increíblemente cerca».

Gregorio Ariz,  
a la vuelta del Dhaulagiri.

---

---

«Arrakasta eta hutsegitea, bizitza eta heriotzea elkarren ondoan daude».

Gregorio Ariz-ek,  
Dhaulagiri-tik itzultzerakoan.

---

«Una vez más, la primera semana de Mayo ha vuelto a ser dentro del montañismo vasco el período «punta» del año en cuanto a noticias alpinísticas se refiere. Si en 1979 fue el nombre de Dhaulagiri, y en 1980 el del Everest los que polarizaron la atención general, en esta oportunidad la actualidad se dividía en una doble vertiente, con las cimas del Jannu y del Lhotse Shar como puntos de referencia de la actividad de nuestros montañeros».

El final de ambas expediciones ha sido diferente: el Jannu con llegada a la cima, el Lhotse Shar con retirada. «Y han comenzado a circular las dos únicas etiquetas que parecen existir en estos casos para calificar un resultado: éxito o fracaso; o lo que es lo mismo: el ensalzamiento frente al olvido; el regreso triunfal o el incógnito absoluto».

Este enjuiciamiento puede resultar absolutamente erróneo y dramáticamente injusto. La naturaleza es tan importante en las grandes montañas que puede condicionar que, a pocos metros de la cumbre, no quede más remedio que retirarse, decidiendo así el resultado de toda la expe-

dición, de todos los años de preparativos, en su caso, y, en definitiva, determinando la imagen de esa empresa ante la opinión pública y la historia.

No es razonable calificar de fracaso a una expedición (como la del Lhotse Shar) por el solo hecho de no haber alcanzado la cumbre, sin considerar los demás elementos de juicio: puede ser que no se hayan cometido errores y que haya habido mala suerte. Lo que sí es irrefutable es que a una cumbre de envergadura (como la del Jannu) no se llega por casualidad. El resultado es el fruto de una labor inteligente y audaz, sin grandes errores.

La cima puede ser un acontecimiento terriblemente excitante y satisfactorio, pero no sirve para medir el éxito o el fracaso de una expedición. Se puede calificar, en cambio, de fracaso, una expedición mal planteada, con unos objetivos desproporcionados a los medios del equipo, o un grupo que no sea capaz de superar la difícil prueba de la convivencia entre los miembros, o que no sepa retroceder a tiempo cuando las cosas se ponen insolubles, o que deje un recuerdo amargo entre las gentes o los paisajes por los que se mueve...